

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2022 FORU DEKRETUA, azaroaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baitira 2023ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak. (BAO Abenduaren 12koa)**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak kostu bidezko edo dohaineko eskualdaketei dagokienez ezartzen duenaren arabera, erregelamendu bidez finkatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratuko da ondare-elementuen eskuratze-balioa. Horretarako, zera hartuko da, batik bat, kontuan: ea zer bilakaera izan duen kontsumorako prezioen indizeak ondare-elementuok eskuratu ziren egunetik eta ea zer bilakaera espero den elementuok eskualdatuko diren ekitaldirako.

Hori dela eta, 2023ko ekitaldian egiten diren eskualdaketetan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak ezartzen dira foru-dekretu honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren mendeand dauden ondare-irabazien edo -galeren zenbatekoa kalkulatzeko.

Beste alde batetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan xedatzen denaren arabera, ibilgetu material edo ukiezinaren zein ibilgetuko inbertsioen ondare-elementuak eskualdatzetik lortutako errenta positiboak zerga-oinarrian sartzeko, errenta horietatik honako hau kenduko da, eta betiere errenta horien mugarekin: eskualdatutako elementuari dagokienez, haren legezko azken egunerapen baimendutik edo, geroago eskuratua bada, elementua eskuratu zen egunetik gertatu den monetaren balio-galeraren zenbatekoa, erregela jakin batzuen arabera kalkulatu. Hona lehen erregela: eskualdatutako ondare-elementuen eta haiei dagozkien amortizazioen eskuraketa-prezioa edo ekoizpen-kostua eta arau bidez ezartzen diren koefizienteak biderkatuko dira.

Beraz, foru-dekretu honen helburua da, batetik, arautegia garatzea eta, bestetik, 2023. urtean hasiko diren zergaldietan egiten diren eskualdaketei aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak ezartzea.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea foru arau honetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

**1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2023. urtean monetaren balio-galera zuzentzeko aplikatuko diren koefizienteak.**

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak kostu bidezko edo dohaineko eskualdaketen xede diren ondare-elementuen eskuratze-balioa zehazteari buruz xedatzen duena betetzeko, ondoren adierazten diren eguneratze-koefizienteak aplikatuko zaizkie 2023ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei:

<b>Ekitaldiak</b>	<b>Koefizienteak</b>
1994 eta aurrekoak	1,908
1995	2,026
1996	1,952
1997	1,908
1998	1,866
1999	1,815
2000	1,753
2001	1,688
2002	1,628
2003	1,584
2004	1,537
2005	1,488
2006	1,439
2007	1,399
2008	1,344
2009	1,340
2010	1,318
2011	1,279
2012	1,250
2013	1,230
2014	1,228
2015	1,228
2016	1,228
2017	1,204
2018	1,185
2019	1,174
2020	1,174
2021	1,139
2022	1,048
2023	1,000

**Bi.** Hala ere, ondare-elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratua bada, 1995eko koefizientea aplikatuko da.

**2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergan 2023. urtean monetaren balio-galera zuzentzeko aplikatuko diren koefizienteak.**

**Bat.** 2023. urtean hasiko diren zergaldietan, honako hauek izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan aurrez ikusten diren koefizienteak:

<b>Ekitaldiak</b>	<b>Koefizienteak</b>
1983 eta aurrekoak	2,804
1984	2,548
1985	2,351
1986	2,214
1987	2,109
1988	2,014
1989	1,918
1990	1,843
1991	1,782
1992	1,728
1993	1,713
1994	1,679
1995	1,603
1996	1,546
1997	1,520
1998	1,582
1999	1,525
2000	1,423
2001	1,403
2002	1,379
2003	1,359
2004	1,342
2005	1,318
2006	1,293
2007	1,248
2008	1,218
2009	1,205
2010	1,202
2011	1,187
2012	1,178
2013	1,170
2014	1,170
2015	1,164
2016	1,156
2017	1,135
2018	1,120

2019	1,106
2020	1,097
2021	1,085
2022	1,034
2023	1,000

**Bi.** Hona nola aplikatuko diren goiko zenbakian ezarritako koefizienteak:

- a) Eskuraketa-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren gainean, ondare-elementua zein urtetan eskuratu edo ekoitzi zen kontuan hartuta. Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea hobekuntzok egin diren urteari dagokiona izango da.
- b) Amortizazioen gainean, egin diren urteko kontabilitatearen arabera.

## **AZKEN XEDAPEN**

### **Bakarra. Indarrean jartzea.**

Foru-dekretu hau 2023ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.